



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
28/07/2016

Las Juntas Generales de Bizkaia apuntan al Congreso como el foro para debatir el tratado de libre comercio entre la UE y Canadá

Las Juntas Generales de Bizkaia han rechazado hoy en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia que se deba instar al Gobierno español “a no autorizar la firma o ratificación del Acuerdo Económico y Comercial Global (CETA)” entre Canadá y la Unión Europea. Dicha petición, recogida en una proposición no de norma del grupo juntero Podemos Bizkaia, ha sido desestimada por 10 votos en contra (PNV, PSE-EE y PP) y 4 votos a favor (Podemos y EH Bildu). Los grupos que se han opuesto a dicha iniciativa han considerado que el foro de discusión debe ser el Congreso de los Diputados, puesto que el tratado tiene que ser ratificado por los distintos parlamentos de la UE por su condición de acuerdo “mixto”, para la posterior firma definitiva por parte del Gobierno central.

Como ha explicado la portavoz de Podemos Bizkaia en la Cámara vizcaína, Neskutz Rodríguez, la iniciativa pretendía instar al Gobierno central a “rechazar” cualquier aplicación provisional del acuerdo y a “exigir” que la Comisión Europea tuviera que esperar hasta que todos los procedimientos nacionales, regionales y territoriales de ratificación se llevaran a cabo, “con el fin de escuchar la voz de la ciudadanía europea”.

La apoderada del grupo morado ha afirmado que dicho tratado, que el Parlamento Europeo deberá dar el visto bueno en el mes de septiembre, supone una “pérdida de condiciones laborales, económicas y agroalimentarias”. Además, abrirá la puerta en Bizkaia al petróleo extraído mediante la técnica de “arenas bituminosas” que Canadá trata de comercializar en Europa a través del citado acuerdo comercial. Su extracción requiere de una minería a cielo abierto con unos impactos ambientales y sociales “enormes” allí donde se explota.

Para el PP, el trasfondo del debate tiene que ver con la asunción o no de un modelo económico basado en el libre comercio “por el que nosotros apostamos”, ha dicho su portavoz Javier Ruiz. A su juicio, el acuerdo deber ser visto en clave “positiva desde el punto de vista empresarial y de creación de empleo”. Las previsiones económicas que maneja la UE es que el comercio “se incrementará un 25%”, “en unos 12.000 millones de euros”. Entre sus ventajas, el portavoz del PP ha citado también “la eliminación de los derechos de importación”, la posibilidad de que nuestras empresas liciten en el país norteamericano “en igualdad de condiciones”, y la eliminación de las trabas burocráticas. En definitiva, “redunda en la mejora de la actividad económica y del empleo”, ha resumido.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por su parte, Alexia Castelo (PSE-EE) ha señalado que la propuesta de Podemos no recoge “cambios” que se han negociado entre las partes en el borrador del tratado como la creación de un tribunal permanente para mediar en los conflictos o la consideración de tratado “mixto” que obliga a que sea ratificado por los distintos parlamentos de los países miembros de la UE. Finalmente, ha explicado que su grupo se encuentra “en una fase de análisis” respecto al contenido del mismo.

David Lopategi, de EH Bildu, cree que estos tratados (TTPI, CETA...) han traído economías locales “devastadas”, empleos “destruidos” y empresas locales “en desventaja” respecto a las multinacionales. “Favorecen a la gran multinacional y van en contra de la soberanía de los pueblos”. Según el apoderado de la coalición abertzale, los efectos de tratados similares han sido “devastadores para la economía real de la gente”, afectando a la calidad del empleo. El libre mercado es un “totem de la derecha”, que viene a favorecer la llegada de empresas multinacionales “que se van con todas las ayudas”.

Por su parte, Janire Bijueska, del PNV, después de afirmar que existen “1.400 tratados internacionales suscritos por los países de la UE”, ha subrayado que su carácter “mixto”, obligará a que pase el filtro de las Cámaras nacionales de los Estados pertenecientes a la UE. Aquí, habrá un debate “doble”, tanto en el Congreso como en el Senado. La apoderada jeltzale ha sostenido que en la propuesta de Podemos existe una “descoordinación”, en donde “por un lado se insta a no autorizar la firma y acto seguido se insta a que no entre en vigor en la fase provisional”. Haciéndose eco de las fuentes europeas, Bijueska ha señalado que el tratado ha pasado previamente por una fase de confrontación ciudadana, algo que se ponía en entredicho en la propuesta de Podemos, y cuenta con un informe jurídico “favorable”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
2016/07/28

Bizkaiko Batzar Nagusien eretziz, Europar Batasunaren eta Kanadaren arteko merkataritza libreko akordioa lantzeko foro egokia Kongresua da

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onartu gaur, Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordean, Espainiako Gobernuari Europar Batasunaren eta Kanadaren arteko “Ekonomia- eta Merkataritza-Akordio Orokorra (CETA) sinatzea edo berrestea ez daiala baimendu” eskatzea. Batzarretako Podemos Bizkaia taldearen arauz besteko proposamen batean jaso dan eskari hori ez da onartu, kontrako 10 boto (EAJ-PNV, PSE-EE eta PP) eta aldeko 4 (Podemos eta EH Bildu) izan ditualako. Ekimenaren kontra agertu diran taldeen eretziz, gai hori eztabaidetako foroa Diputaduen Kongresua izan beharko litzateke, akordio “mistoa” danez Europar Batasuneko Legebiltzarrek berretsi behar dabelako, horren ostean Gobernu Zentralak behin betiko sinau daian.

Neskutz Rodríguez Podemos Bizkaia taldeak Bizkaiko Batzarretan dauen bozeroaleak azaldu dauen moduan, ekimenaren helburua Gobernu zentralari akordioaren behin behineko edozein aplikazino “ez onartzeko” eskatzea eta Europar Batzordeak, nazino, lurralde eta eskualde mailako berrespeneko prozedura guztiak egin arte itxaron daiala “exijitzea” zan, “Europako herritarren ahotsa entzun ahal izateko”.

Talde moreko batzordekideak adierazo dauenez, Europako Legebiltzarrak irailean onartu beharko dauen akordio horrek “lan, ekonomia eta nekazaritza-elikadura arloko baldintzak galtzea” eragingo dau. Gainera, Bizkaian atek zabalduko jakoz, aitatutako merkataritza arloko akordio horren bitartez Kanadak Europan merkaturatu gura dauen “harea bituminosoak” teknikea erabiliz ataratako petrolioari. Petrolioia holan eskuratzeko, ustiatzen dan lekuan ingurumen eta gizarte arloko “oso eragin kaltegarriak” sortzen dituan aide zabaleko meatzaritza behar da.

PP taldearen eretziz, eztabaidaren muina, merkataritza librean oinarritutako eredu ekonomikoa onartzeagaz edo ez onartzeagaz dago erlazionauta, eta bere taldeak “eredu horren aldeko apustua” egiten dauela esan dau Javier Ruiz bozeroaleak. Bere eretziz, akordioa klabe “positiboan ikusi behar da enpresaren eta enpleguaren sorreraren ikuspegietatik”. Europar Batasunak esku artean dituan aurreikuspen ekonomikoek erakusten dabenez, merkataritza “%25 handituko da”, “12.000 milioi euro ingurutan”, hain zuzen be. Akordioaren abantailen artean, PP taldeko bozeroaleak “inportazinarako eskubideak desagertzea”, gure enpresek Ipar Ameriketako herrialde horretan “baldintza berberakaz” lehiatzeko aukera izatea, eta oztopo burokratikoak desagertzea aitatu ditu. Hau da, “jarduera ekonomikoa eta enplegua hobetuko ditu”, laburbildu dau.

Alexia Castelok (PSE-EE), bere aldetik, esan dau Podemosen proposamenak ez dituala jasoten akordioaren zirriborroan aldean artean negoziatu diran “aldaketak”, gatazken



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

aurrean bitartekaritza lana egiteko epaitegi iraunkorra egongo dala edo Europar Batasuneko kide diran herrialdeetako legebiltzarrek berrestea eskatzen dauen akordio “misto” izaerea, besteak beste. Amaitzeko, bere taldea, akordio horren eukiaren “azterketa fasean” dagola azaldu dau.

EH Bildu taldeko David Lopategiren eretziz, holango akordioek (TTPI, CETA...), toki mailako ekonomia “hondatuak”, “deuseztatutako” enpleguak eta multinazionalen aurrean “desabantaila” egoeran dagozan toki mailako enpresak eragin ditue. Koalitzino abertzaleko batzordekideak adierazo dauenez, antzeko akordioen ondoreak “oso kaltegarriak izan dira jendearen benetako ekonomiarako”, eta eragina izan dabe enpleguaren kalidadean. Merkadu librea “eskumaren totema” da, eta “laguntza guztiak jaso eta gero ospa egiten daben” enpresa multinazionalen iritsiera errezten dau.

EAJ-PNV taldeko Janire Bijueskak, “Europar Batasuneko herrialdeek sinatutako nazinoarteko 1.400 akordio” dagozala esan ostean, akordio horren izaera “mistoa” dala eta, Europar Batasuneko kide diran Estaduetako nazino mailako Ganberen irazkia pasau beharko dauela azpimarratu dau. Espainiako Estaduan eztabaida “bikotxa” egongo da, Kongresuan eta Senaduan, hain zuzen be. Batzordekide jeltzaleak esan dauenez, Podemos taldearen proposamenean “koordinazino faltea” dago. “Alde batetik, sinadurea ez baimentzeko eskaria egiten da, eta horren ostean, behin behineko fasea indarrean ez sartzea eskatzen da”. Europako iturriek adierazoten dabena kontuan izanda, Bijueskak azpimarratu dau akordioak aurretik herritarren eztabaida fasea gainditu dauela, Podemos taldearen proposamenean hori zalantzan jarten bazan be. Horrez gain, “aldeko” txosten juridikoa badaukala be esan dau.